



Ikasgaiaren programa

MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA



IBAIZABAL IKASTOLA

2023-24

1BTX

0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

Dokumentu honetan Fisika ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:

- 1. Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren HELBURUAK.*
- 2. Ikasturtean zehar landuko diren EDUKIAK, eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.*
- 3. Ikasgaia lantzeko erabiliko den METODOLOGIA; hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua.*
- 4. Ikaslearen lana eta jarrera nola EBALUATUKO den; hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.*
- 5. Ikaslearen nota eraikitzeke KALIFIKAZIO SISTEMA; hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren nota nola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).*

*Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikaslearen **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.*

*Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota ona eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzu.*

*Garrantzitsua da kontuan hartzea emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina, era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea**, **kritikotasunez eta autonomiaz jokatzera**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.*

*Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak** dokumentu honetan aurkituko dituzu.*

1. IKASGAIAREN HELBURUAK

H1. Mundu garaikidearen historiari dagozkion gertakari aipagarriak denboran eta espazioan behar bezala kokatuz azaldu eta aztertzea, hauen garrantziaz jabetzeko historiaren prozesuan duten esanahia eta orainaldiarekiko ondorioak baloratuz.

H2. Azkenaldiko historia itxuratzen duten ekonomia, demografia, gizarte, politika eta kulturari dagozkien prozesu nagusiak azaldu, ezaugarri adierazgarrienak antzemanaz eta osagarri izan dituzten askotariko faktoreak aztertuz gaur egungo errealitatea ulertu ahal izateko.

H3. Historiografiak finkatutako oinarritzko kontzeptuak eta terminologia behar bezala erabiltzea eta arakatze eta laburbiltze lanak burutzea historiaren kontakizun osatu eta zuzen bat egiteko informazioa aztertu eta iturburu eta historialarien zeregina baloratuz.

H4. Gizarte arazoen aurrean, batez ere, giza eskubideak eta bakea, justizia soziala, ingurugiroaren babesa eta ezberdintasuna (bere alderdi guztietan) ukitzen dituztenen aurrean sentsibilizatzea eta erantzukizunaren zentzua garatzea eta ereduak sortzea gizartea eraldatu ahal izateko jarrera demokratiko, tolerantziatzeko eta partaidetzazkoak hartuz.

H5. Mundu Garaikidearen ikuspegi orokorra azaltzea ikuspegi lokalista eta eurozentristak gaindituz, gaur egungo arazo eta egoerak hobeto ulertzeko.

H6. Gizarteari buruz norberak dituen ideiak eztabaidatzea eta kritikoki sakontzea, informazio berria kontuan hartuz, estereotipoak eta aurreiritziak zuzendu eta azterketa historikoa etengabe berregiten den prozesu gisa ulertzeko.

H7. Identitate kolektiboak eraikitzeke prozesuak deskribatzea hauek munduaren konfigurazio sozial, politiko eta kulturalean duten garrantzia ulertzeko eta identitate kolektiboek sortu dituzten ondare historiko eta kulturala baloratzeko pentsamendu historikoaren kontzeptu eta metodoak erabiliz.

2. IKASGAIAREN EDUKIAK

1. BLOKEA> Antzinako Erregimenaren Amaiera

UD1> Antzinako erregimeneko Europa
UD2> Antzinako erregimenaren krisia
UD3> Lehen industria iraultza

2. BLOKEA> Mundu Garaikidearen Eraikuntza

UD4> Europako estatuak: liberalismoa eta nazionalismoa
UD5 > Gizarte-aldaketak XIX mendeko Europan
UD6> Amerika: estatuaren independentzia-prozesuak

3. BLOKEA> Europa Inperiala

UD7> Bigarren Industria Iraultza eta Inperialismoa
UD8> Lehen Mundu Gerra (1914-1918)
UD9> Errusiako Iraultza eta Sobietar Batasuna

4. BLOKEA> Europaren Hegemoniaren Amaiera

UD10 > Gerrarteko ekonomia eta Depresioa Handia
UD11 > Demokraziak eta totalitarismoak (1919-1939)
UD12> Bigarren Mundu Gerra (1939-1945)

5. BLOKEA> 1945etik aurrerako mundua

UD13 > Gerra Hotza: Mundu bipolarra
UD14 > Energia iturriak Afrika eta Asia: deskolonizaziotik potentzia berrietara
UD15 > Latinoamerika XX eta XXI. Mendeetan

6. BLOKEA> Gaur eguneko mundua

UD16 > EEEtik Europar Batasunera
UD17 > Gaur eguneko Mundu

* OHARRA: programaren barruan grisez agertzen diren unitateak ikustea ez da ziurtatzen. Gaur egungo munduaren gatazka nagusietako batzuk aztertzeke ikerketa lan batekin ordezkatu da gabezia hori.

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

	BLOKEA					
EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	1	2	3	4	5	6
1. Ebaluaketa						
2. Ebaluaketa						
3. Ebaluaketa						

3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Testu liburu digitala izango da euskarri nagusia eta bertako informazioa irakaslearen azalpenekin osatu beharko du ikasleak.

Ikas teknikak menperatzea nahi da eta horregatik lanketa sistematizatu bat jarraituko da. Irakasleak gaiaren aurkezpen bat egingo du eta ikaslearen ardura izango da testu eta aurkezpenetatik haien apunteak osatzea. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da. Edukiak finkatzeko ariketak egingo dira ahal den guztietan, eta ikasgelan zuzenduko dira jarduera hauek.

Ebaluazio bakoitzean landutako gaiak sartuko dira kontrol edo azterketan eta bertan ikasleak gaia menperatzen duela erakutsi beharko du, ikasgelan azaldutako ideia ezberdinak erlazionatuz.

Edukiak eskuratzeko saioak ez ezik integrazio jarduerak ere egingo ditugu, taldeka zein bakarka. Hauetan zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira eta historiaren ezagutzak eguneroko bizitzan duen garrantzia landuko da.

4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko frogak ezberdinak egongo dira. Azterketen pisua arintzeko kontrolak egingo dira ebaluazio guztietan.

AZTERKETAK ETA KONTROLAK

Froga idatzien bitartez edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako kompetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Azterketetan edukien eta kontzeptu teorikoen ulermena eta azalpena baloratuko da, bai eta ebazpen prozeduran erabilitako hiztegia. Horretaz gain, emandako azalpenen eta egindako planteamendu eta garapenen heldutasuna, arrazonomendu kritikoa eta sakontasuna baloratuko da.

Azterketak zuzendu ostean gelan komentatuko ditugu, erantzun zuzenak zeintzuk izan daitezkeen eta zalantzak argitzeko tarteak ere izango dugu. Etorkizunera begira haien azterketen indargune eta hobetu beharreko alderdiak identifikatu ahal izateko.

INTEGRAZIO JARDUERAK

Integrazio jardueren bitartez, edukiak osatzeko aukera egongo da. Geografiaren ezagutza eguneroko bizitzan nola txerta daitezkeen eta gaur egun ditugun zein etorkizunean izan ditzakegun eronketatik erator daitezkeen hainbat eztabaida ulertzea da ariketa mota honen helburua. Integrazio jarduerak taldeka zein bakarkako zereginak izango dira.

Integrazio jardueraren azalpenarekin batera jasoko dituzue dagozkion ebaluazio-irizpideen deskribapena eta errubrika.

GELAKO JARDUNA

Historia ikasgaien gelako jardunak %10ko balioa du eta honako irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara. Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Bertaratzea. Gelara ez etortzea ez da aukera bat. Ikasgaien justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko bestela zuzenean berreskurapena egin beharko da. Hutsegitea justifikatzeko astebeteko epea dago, epe horretatik kanpo ez da onartuko. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
3. Puntueltasuna. Irakaslea izango da klasean sartzen azkena eta datorrenerako ikasleek materiala mahaian izan beharko dute. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
4. Autonomia eta antolaketa

Lana. Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak eginda ekartzea...

Lanak epe barruan entregatzea. Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.

5. Hezkidetzeta. Ikaskideekiko zein irakaslearekiko errespetua.
6. Parte hartzea. Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea... eta entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak zein ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoaia eta jarrera zainduz.
7. Elkarlana eta elkarbizitza. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea eta kideak laguntzea.

5. KALIFIKAZIO-SISTEMA

HIRUHILEKO BAKOITZAREN KALIFIKAZIOA

Ebaluazio guztietan nota jartzeko irizpide orokorra hau izango da:

- Edukiak eta integrazio jarduerak: %90
- Jarrera: %10: klaseko jarrera, konpromisoekiko ardura , txukuntasuna, parte hartzea, ikasgaiarekiko interesa... Parte hartze egokiak zertan datzan bereziki landuko dugu.

* Ebaluazioa gainditzeko arloko kompetentzien atala (Edukiak) gainditu behar da.

LEHENENGO eta BIGARREN EBALUAZIOAKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA (%)
Azterketa	50
Kontrola	40
Gelako jarduna	10

HIRUGARREN EBALUAZIOKO KALIFIKAZIOA	
ATALA	BALIOA (%)
Azterketa	50
Kontrolak	20/bak.
Integratio jarduerak	20/bak.
Gelako jarduna	10

BERRESKURAPENAK

- Berreskurapen saioetan EBALUAZIOA OSORIK gainditu beharko da.
- Ebaluazioaren berreskurapena azterketa baten bidez egingo da, ebaluazioan zehar landutako eduki guztiak bilduko dituen.
- Ebaluazioa gainditu gabeko ikaslearen nota: Berreskurapenaren nota (%90) + jarrera (%10). Ikasleak aurretik duen nota baino hobea den kasuan, emaitza ordezkatzeko zaio.
- Berreskurapenetan ebaluazioak gainditu gabe jarraitzen badu, OHIKO DEIALDIAN berreskuratu beharko da pendiente geratu den ebaluazio hori. 3. Ebaluazioak ez du berreskurapen saiorik, zuzenean ohiko deialdian egin beharko da ebaluazio horren berreskurapena, ikasturtean zehar pendiente egon daitezkeen gainontzeko ebaluazioekin batera.
- Ez ohiko deialdia izango da pendiente dauden ebaluazioak berreskuratzeko azken aukera.

EZ-OHIKO DEIALDIA

Ez-ohiko deialdian gainditu gabe geratu diren ebaluazioak berreskuratuko dira azterketa baten bitartez. Azterketa honek ebaluazioko edukien atalean %90a ordezkatzeko du, ikasleak aurretik daukan nota baino altuagoa denean.

IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ikasturteko nota 3. hiruhileko batz-besteko aritmetikoaren kalkuluaren bitartez egingo da.

Ebaluazio guztiak gainditu behar dira batzbestekoa egiteko. Ez da ikasturtea gainditzat emango ebaluazioen bat gainditu gabe geratu baldin bada.

BERRESKURAPENAK

Hiruhilekoak berreskuratzeko aukera egongo da. Berreskurapenak arratsaldean egingo dira, ordu lektiboetatik kanpo.

Hirugarren ebaluaketaren berreskurapena zuzenean OHIKO DEIALDIAN izango da.

NOTA IGOERAK

Ikasturteko nota hobetzeko aukera egongo da azterketa bakoitzean borondatezko galdera gehigarri bat erantzunez. Galdera honen bitartez ideiak elkarrekin harremanetan jarri zein gaiaren gainean hausnartuz ebaluazioan zehar landutako jakintzak eta konpetentziak barneratu dituela erakutsi beharko du ikasleak.

Ikasgaia gaituta dutenek nota globalean puntu bat igotzeko aukera izango dute Europa garaikideak dituen gatazken gaineko erronka baten bitartez.

XABIER ARRATE BURGUILLO (xarrate@ibaizabalikastola.eus)

Ibaizabalen 2023ko irailean.